



GURASO BILERA

LH 5

2025- 2026 ikasturtea

AURKIBIDEA

1. IRAKASLEAK ETA FAMILIEKIN HARREMANA
2. METODOLOGIA
3. JANGELA EREDUA
4. ARLOAK ETA IKAS-MATERIALA
5. LAN AZTURAK. GURASOEKIN ELKARLANEAN
6. HELBURUAK ARLOZ-ARLO
7. OSASUN ARRETA
8. IRTEERAK, JARDUERA OSAGARRIAK ETA OSPAKIZUNAK
 - a. Haur Danborrada
9. ZENBAIT OHAR
10. ERANSKINAK
 - a. Ordutegia
 - b. Jangelako dekalogo

1. IRAKASLEAK ETA FAMILIEKIN HARREMANA

TUTOREAK:

5.A ANDREA BARRA abarra@zurriolaikastola.eus

5.B MAITE CRAMOIX mcramoix@zurriolaikastola.eus

AMAIA JAKA ajaka@zurriolaikastola.eus

5.C MIKEL SOROA msoroo@zurriolaikastola.eus

Heziketa fisikoa: MIKEL SOROA msoroo@zurriolaikastola.eus

Gaztelania (C): MAITE CRAMOIX mcramoix@zurriolaikastola.eus

AMAIA JAKA ajaka@zurriolaikastola.eus

Gaztelania (A-B): PAULA GONZALEZ pgonzalez@zurriolaikastola.eus

Musika: IGOR BILBAO ibilbao@zurriolaikastola.eus

Antzerkia: MIKEL SOROA msoroo@zurriolaikastola.eus

Ingelesa (B-C): ANDREA BARRA abarra@zurriolaikastola.eus

Ingelesa (A): GARBIÑE IGUARAN giguaran@zurriolaikastola.eus

Orientatzailea eta PT-a: JONE REGLA jregla@zurriolaikastola.eus

LH-ko etapa burua: PAULA GONZALEZ etapaburualh@zurriolaikastola.eus

Ikasgaia	Irakasleak		
	A	B	C
Tutoretza	Andrea Barra	Maite Cramoix / Amaia Jaka	Mikel Soroa
Ingurunea	Andrea Barra	Maite Cramoix / Amaia Jaka	Mikel Soroa
Euskara	Andrea Barra	Maite Cramoix / Amaia Jaka	Mikel Soroa
Antzerkia	Mikel Soroa	Mikel Soroa	Mikel Soroa
Baloreak	Maite Cramoix / Amaia Jaka	Maite Cramoix / Amaia Jaka	Mikel Soroa
Gaztelania	Paula Gonzalez	Paula Gonzalez	Amaia Jaka / Maite Cramoix

Matematika	Andrea Barra	Maite Cramoix / Amaia Jaka	Mikel Soroa
Ingelesa	Garbiñe Iguaran	Andrea Barra	Andrea Barra
Heziketa Fisikoa	Mikel Soroa	Mikel Soroa	Mikel Soroa
Arte Hezkuntza	Maite Cramoix / Amaia Jaka	Maite Cramoix / Amaia Jaka	Maite Cramoix / Amaia Jaka
Musika	Igor Bilbao	Igor Bilbao	Igor Bilbao

Ikasturtean zehar guraso bilera orokor bat egingo dugu. Horretan ikasturteko helburuak, metodologia eta eguneroko dinamikaz arituko gara.

Urtean idatzizko 3 ebaluazio-txosten helaraziko zaizkizue. Bakarkako 2 elkarriketa egingo ditugu gurasoekin ebaluazio-txostenen gaineko azalpenak emateko eta ikaslearen garapenari buruzko informazioa trukatzeko. Biler horietaz gain, behar adina aldiz elkartuko gara zuekin, egoerak hala eskatuz gero.

Tutorearekin harremanetan jarri edo mezu bat helarazi nahi izanez gero, bere e-postara mezu bat bidali eta ahalik eta azkarren emango zaio erantzuna. Momentuan jaso beharreko mezua balitz, Ikastolako idazkaritzara deitu. Ikasleen bidez oharrak bidaliz gero, hauek idatziz egin beharko dira, aste-egitarauaren bitartez.

Hortaz gain, gogorarazten dizuegu urtean zehar Ikastolak gurasoekin izango duen komunikazio bide nagusia ostiraletan bidaltzen den **ATARIA** astekari digitala dela. Bertan, aurreko astean izandako ekintza nagusien berri emateaz gain, hurrengo egunetan izango diren gertakariak eta bestelako ohar garrantzitsuak agertzen dira. Hori dela eta, oso garrantzitsua da behar besteko arreta ematea asteroko komunikabide honi. Informazio hori guztiari Ikastolako webgunea gaineratu behar zaio.

Atariarekin inolako arazorik izanez gero, idatzi alexiazalantzak@zurriolaikastola.eus helbidera. Zuen datu pertsonaletan aldaketarik izanez gero, idatzi ezazue idazkaritzara: idazkaritza@zurriolaikastola.eus

2. METODOLOGIA

Ikastolan haurrentzat proposatzen ditugun espazio, material, jarduera eta denboraren antolaketak haurren ongizatean eta garapenean eragin zuzena dute. Honek, gure antolaketa zein espazioen etengabeko azterketa egitera behartzen gaitu, haurren garapen osoan (psikomotorean, afektiboan, sozialean zein kognitiboan) eragina baitu.

Errefortzu saioak

Ikas-prozesuan ager daitezkeen zailtasunei aurre egiteko matematikan laguntza gehigarria eskaintzen dugu. Tutoreak edo arlokako irakasleak zuzenduta izaten dira saio hauek eta ikasle talde txiki bati zuzenduta egoten dira.

Errefortzuak orduz barne izango dira, eta hauetan bigarren irakasle bat sartuko da gelan. Ikasleren bat errefortzuan hartuko bada familiei adieraziko zaizue.

3. JANGELA EREDUA

Jangelako orduetan, bazkaltzeaz gain, beste balore eta helburu batzuk lantzen ere saiatzen gara. Bazkaltzea ez da helburu bakarra. Eremu honetan hainbat alor lantzeko aukera dago: ardura, autonomia, motrizitatea, garapen emozionala, ingurunearekiko sentiberatasuna, mahaian eduki beharreko ohitura egokiak... Ikasleei protagonismoa ematea bilatzen du, jangelako tarte horretan beraien parte-hartzea areagotuz.

Ategorrietako ezaugarriek eta antolaketak ikasleek bazkaltzeko duten denbora luzatzea baimentzen du, eta adinaren arabera ikasleek mahaia jarri, mahaia jaso, aulkiak bildu, ingurua txukundu... egingo dute. Aurrera begira asmoak urrutirago garamatzate, baina, oraingoan, ardura txikiak hartzen hasiko gara. Ikasleak mahai borobiletan eseriko dira, eta beraietako bat arduraduna izango da. Ikasleekin geletan landuko den dekalogoia eranskinean duzue.

4. ARLOAK ETA IKAS-MATERIALA

EKI PROIEKTUA

Ikasturte honetan matematika, ingurunea, gaztelania eta ingelesa arloetan EKI proiektuarekin jarraituko dugu. Eki proiektua EHko ikastolen hezkuntza proiektu propioa da. Euskal Curriculumuma barneratzen du, honakoak sustatuz:

- Pertsonaren garapen osoa landu.
- Euskal kulturaren oinarriak eskuratzea.

Konpetentzien lanketan oinarritzen da:

- Edukiak ikasi eta metatzea ez da azken helburua.
- Edukiak baliabidetzat hartzen dira.

Integrazioaren pedagogia da aukera metodologikoa:

- Ikasleari benetako egoera esanguratsuak planteatuko zaizkio, irtenbidea aurki dezan.
- Helburua da ikaslea unitate bakoitzaren amaieran zeregin batzuetan konpetentea izatea.
- Horretarako proposatutako egoera bati irtenbidea eman beharko dio, ikasitako edukiak erabiliz.

Unitate didaktikoaren garapena

Hiru unitate ditu ikasturteko. Unitate bakoitza hiru fasetan banatzen da:

1. Diziplinarteko hasiera fasea
2. Arlokako sekuentzia fasea:
 - Ingurunea
 - Matematika
 - Gaztelania
 - Ingelesa
3. Diziplina arteko amaiera fasea

Arlokako sekuentzia fasea, era berean, beste hiru fasetan banatzen da.

1. Hasierako fasea: Zer, nola eta zertarako? Egoeraren aurkezpena egiten da.
2. Garapen-fasea: Edukiak eskuratzen dira eta hasierako egoerari aurre egiten zaio.
3. Amaierako fasea: Egoera berriei aurre egiten zaie.

Materiala

- 5 aniladun karpeta: bertan unitate bakoitzeko jarduera fitxak egongo dira (ingeleza, ingurunea, matematika, gaztelania, euskara).
- Funden karpeta: bertan musikako jarduerak egongo dira.
- Marradun koaderno handia: idazlanak egingo dituzte bertan.
- Unitateko liburuak.
- Gelan ordenagailu kaxa daukagu eta ikasle bakoitzak zerrendako zenbakiaren arabera, berea erabiliko du.

Ebaluazioa

Unitate bakoitzean arlo ezberdinek bere helburu didaktikoak dituzte. Ondoren, unitatearen bukaeran, landutakoa zerbait gauzatzeko erabiliko dugu, eta arloko konpetentzia izango da hori. Azkenik, arlo ezberdinetan landutakoa integratzeko diziplinarteko konpetentzia orokorra izango dugu.

Ebaluazio tresnak:

Arlokako fasean

- Arlokako garapen faseko jarduera batzuk erabiliko ditugu ebaluatzeko.
- Arlokako amaiera faseko jarduerak ere oso garrantzitsuak izango dira ebaluaziorako, arloan landutakoa aplikatuko dutelako.
- Programatutako kontrolak.

Auto erregulazio jardueren garrantzia


- Jarduera horien bitartez ikasleak bere burua ebaluatu behar du.
- Garapen eta Amaierako faseen azken aldera planteatzen dira auto erregulazio jarduerak.

Diziplinarteko amaiera fasean

- Egoera erreal batean arlo ezberdinetan landutako edukiak nola aplikatu dituen ebaluatuko dugu.

Laburbilduz: zer eskaintzen digu EKI proiektuak?

- Konpetentziak lantzen ditu.
- Proiektuak baliatzen ditu ikasitakoa erabiltzeko. Metodologia horrek ikasleen motibazioa areagotzen du.
- Autonomia bultzatzen du, ikaslea da protagonista.
- Lau ikasgaien arteko koordinazioa bermatzen du.
- IKT-ak proiektu eta jardueretan integratuta daude.



EUSKARA

Elik proposatutako metodologian oinarrituz, baina gelako aniztasunari modu zabalagoan erantzuteko eta gure Ikastolako ikasleen errealitate linguistikoari hobeto erantzuteko, euskararako material propioa dugu. Material hau hiruhileko bakoitzean proiektu batean zentratuz gauzatuko dugu (prentsa, ipuingintza eta sukaldaritza) eta gai hauetan oinarrituz, hizkuntzaren helburuak eta konpetentziak lortzera bideratuta egongo da ikasle bakoitzaren garapenerako aproposa den eskaintza eginez.

Adin honetan irakurketa eta idazketa indartzen jarraituko dugu, eta ulermena eta idazketa lantzeko jarduerak desberdinak erabiliko ditugu. Irakurketari garrantzia eman nahian, gelan tartetxo bat eskainiko diogu bakarkako irakurketari eta astero-astero Ikastolako liburutegira joango gara. Hau etxean ere landu beharrekoa da, eta egunero 10-15 minutu irakurtzea komeni zaie. Horretarako, gurasoen

partaidetza beharrezkoa da: animatuz, elkarrekin irakurriz... Motxilan beti liburu bat eramane beharko dute etxean eta Ikastolan liburu berdina irakur dezaten.

TUTORETZA SAIOAK

- Helburuak:
 - Auto-estimua eta auto-ezagutzatik abiatuta norbanakoaren garapena.
 - Emozioen lanketa egitea.
 - Egunerokotasunean sortzen diren gatazken kudeaketa.
 - Bizikidetza arauak balioestea eta errespetatzea.

ARTE HEZKUNTZA: MUSIKA

Musika munduko edozein tokitan hitz egin eta ulertu daitekeen hizkuntza unibertsala da. Horregatik, musikak dituen ezaugarriak eta bere garrantziaz ohartaraztea da maila honetako helburu nagusia. Horretarako mugimendua, ahotsa, erritmoa, eta instrumentazioaren hastapenak landuko dira nagusiki, horiek sortuz, erabiliz eta jasoz. Gainera, musika eta dantzak garrantzia handia izan du gure identitateari dagokionez; beraz, musika saioa euskal kulturaren eta euskal-ohituren transmisio-unea ere izango da.

HEZIKETA FISIKOA

Norberaren gorputzaren gaitasun motorrak ezagutzea eta, besteak beste, jolasaren bidez horiek garatzea da gure helburu nagusia. Horretarako ekintza ezberdinak proposatuko ditugu: bakarkakoak, bat baten aurkakoak, elkarlanekoak, elkarlaneko-aurkakotasunekoa, ziurgabetasunekoa eta adierazpenekoak. Horiek guztietan arauen betetzeaz gain partehartzea ere sustatuko da.

Jarduera fisikoetan aktibo izatea bilatzen dugu eta norbere osasunean duen onura ezagutzea.

Ingurukoekiko errespetua eta taldekideekin duten lankidetzaren baloratuko dira.

Heziketa Fisikoa burutzen den egunetan arropa egokia ekarri behar dute. Egunen batean saioa burutzeko ezintasunen bat edukiz gero, idatzizko oharra bidali beharko da.

BALOREAK

Adin honetan, haurrak transizio-garai bat izaten du, banakako pertsonak sentitzetik beste pertsona batzuekin dituen harremanak garrantzia gehiago hartzen duelarik. Ondorioz, bizikidetzaren esparruan, bere gertukoak diren testuinguruetan (familia, ikastola, auzoa) sortzen diren egoeren kudeaketarako herramientak eta estrategiak

lantzen dira. Bestalde, besteekiko errespetuzko jokabideak sustatzen dira, berdintasunezko eta diskriminaziorik gabeko elkarbizitza helburu izanik.

- Helburuak:
 - Herriararon betebeharrak eta eskubideak ezagutzea.
 - Gizalegezko ohitura eta jarrerak sustatzea.
 - Gizartearen ulertzea bertan integratu ahal izateko.
- Proiektuak:
 - Giza eskubideen inguruko hainbat ekimenetan parte hartzea.

IKASKUNTZA KOOPERATIBOA

- Ikaskuntza Kooperatiboan oinarrizko talde txikitan lan egiten da ondorengo helburuak lortzeko:
 - Berdintasunezko parte-hartzea ahalik eta gehien ziurtatzea.
 - Aldibereko elkarlanean indartzea.
- Hau kontuan izanik ondorengo alderdiak nabarmendu daitezke:
 - Ikaskuntza Kooperatiboko taldeko kideek erantzukizun bikoitza dute: irakasleak irakatsitakoa ikastea eta taldekideekin kooperatzea.
 - Irakasleak bi helburu ditu: ikasleek eskolako edukiak ikastea, eta aldi berean, taldean lan egiten eta kooperatiboak izaten ikastea.
 - Ikaskuntza kooperatiboa ikasleek ikasi beharreko curriculum eduki bat gehiago izango da.

TAILERRAK. ELKARREKIN SORTUZ

- Astean bi orduz musika-plastika-antzerkia lantzeko tailerrak izango dituzte. Ikasleak tailer guztietatik pasako da ikasturtean zehar.
- Tailerra momentu konkretu batean gauzatzen da, gai zehatz baten inguruan, ikasleak testuinguru bat sortzen zaio eta eredu batzuk eskaintzen zaizkio, eta material/baliabide anitzetik abiatuz produktu bat sortzeko aukera eskaintzen zaio.
- Eskaintako ziurgabetasunezko esperientzien edo erronken aurrean espero da ikaslearengan ideiak, hipotesiak edota galderak sustatzea, hau da, hausnarketa bideratzea.
- Produktuaren sorrerarako teknika ezberdinak erabiltzen dira, baina, tailerren helburua ez da konpetentzia instrumentala (egiten jakin) soilik garatzea, tailerren helburua zehar konpetentziak garatzea da (kritikotasuna, sormena,

erabakitzeko gaitasuna, kooperazioa...). Noski, aukeratutako gaiaren arabera disziplina baitako konpetentziak ere landuko dira bide batez.

- Hori dela eta, ez da ereduaren erreproduzioa bilatzen, produktuaren sorreran, ikertzea, berritzea, transformatzea, pertsonalizatzea, baizik. Prozesuak azken emaitzak bezain besteko garrantzia edo gehiago izango du.

5. LAN AZTURAK. GURASOekin ELKARLANEAN

Gurasoen laguntza ezinbestekoa dugu ikasleen hezkuntzan eta, ziklo honi dagokionez, lan-aztura egokiak eta jarrera baikorrak garatzen jarraitzea oinarritzkoa da. Horregatik, honako puntu hauetan arreta berezia jartzea eskatzen dizuegu:

- **Harremanen kalitatea** zaindu, haurrari entzun, denbora eskaini, esan eta egiten duena baloratu, etab.
- **Errespetuzko jarrerak** bultzatu.
- **Motibazioa eragin:**
 - o Gelan lantzen diren gaiekiko interesa erakutsi.
 - o Ikasturtean zehar izandako aurrerapenak baloratu eta goraiatu.
- **Etixerako lanaren jarraipena** egin. Horretarako aste-egitarauaren jarraipena egitea garrantzitsua da. Ahal dela, etxerako lanak toki eta ordu berean egitea gomendatzen dugu.
- **Materialaren antolaketa** zaindu: Koadernoak, liburuak, motxila...
- **Irakurketa sustatu.** Motxilan liburu bat beti:
 - o Euskara eta gaztelania txandakatu.
 - o Etxean ere irakurketa sustatu.
- **Euskaraz bizi:**
 - o Euskal komunikabideak kontsumitzera eta aisialdian **euskarazko** jarduerak egitera animatu.
- **Eskolaz kanpoko jarduerak** neurrian:
 - o Banakako beharrak desberdinak dira.
 - o Kopuruaz hausnartu eta baloratu.
 - o Lehentasunak markatu.

- **Autonomia sustatu**, bai ikastolako jardueretan bai eguneroko bizitzan beraien ardurak hartzea:
 - o Sortzen diren arazoei aurre egitea.
 - o Zailtasunen aurrean jarrera baikorra eta aktiboa bultzatzea, beraiek bila ditzatela soluzioak betiere behar dutenean gure laguntza eskainiz.
 - o Autoerregulazioaren garrantzia: norbere ikasketa prozesuaren kontzientzia hartu, eta honetan eragin.
 - o Autonomiarantz eman beharreko prozesua progresiboa eta pertsonala dela gogoratu.

6. HELBURUAK ARLOZ ARLO

Hiruhileko bakoitzaren amaieran ebaluazio txosten bat jasoko duzue gurasoek posta elektroniko bidez. Bertan, ikasleek arlo bakoitzean lortutako helburu didaktikoak adieraziko dira, eta hauen lorpen maila. Zenbait kasutan, bestelako xehetasunak ere adieraziko dira, helburua lortu ez bada, noraino iritsi den, adibidez.

Txosten honekin batera jangelako erabiltzaileen gurasoek informe bat ere jasoko duzue.

Jarraian dituzue arloz arlo hiruhileko bakoitzean lortu beharreko helburu didaktikoak.

NORBERA IZAN ETA ELKARREKINTZA

- Bai gelan eta bai gelatik kanpo euskara erabiltzea.
- Lanean era autonomoan aritzea.
- Arrazoitzeko gaitasuna erakustea.
- Gelako zein taldeko jarduera eta elkarriketetan parte hartzea.
- Lanerako jarrera egokia azaldu du eta denbora aprobetxatzea.
- Talde lanetan zein inguruko pertsonekin begirunez jokatzeko.
- Gelako jardueretan bere buruarekiko konfiantza erakustea.
- Egoera ezberdinetan bere emozioak eta ekintzak autoerregulatzea.
- Banakako lanean arduratsu azaltzea.
- Lanak ongi egiten ahalegintzea, zailtasunei aurre egiteko jarrera eta hobetzeko nahia erakustea.
- Gelan erne eta langile aritzea eta lanean zentratzeko gaitasuna azaltzea.
- Baliabide digitalekin arduraz aritzea.

EUSKARA ETA LITERATURA	
1.hiruhilekoa	
PRENTSA	
AHOZKOA	• Prentsako testu ezberdinak taldearen aurrean aurkeztea ahoskera, gorputz adierazpena eta tonua zainduz.
IRAKURKETA	• Egunerokoan irakurritako testu idatziak ulertzea.
IDAZKETA	• Idatzizko testu mota ezberdinen ezaugarriak (albisteak, elkarizketak) errespetatuz testu koherenteak sortzea. • Sortutako testuak zuzentasun gramatikal eta ortografikoz idaztea.
2.hiruhilekoa	
IPUINGINTZA	
AHOZKOA	• Ipuin ezberdinak taldearen aurrean irakurtzea puntuazio-markak errespetatuz eta narratzailearen eta pertsonaien ahotsak bereiziz.
IRAKURKETA	• Aukeratutako liburuak gogoz irakurtzea.
IDAZKETA	• Idatzizko testu mota ezberdinen ezaugarriak (ipuina) errespetatuz testu koherenteak sortzea. • Sortutako testuak zuzentasun gramatikal eta ortografikoz idaztea.
3.hiruhilekoa	
SUKALDARITZA	
AHOZKOA	• Irakurritako liburuak iradokitako ideiak, tertulia literarioan adieraztea. • Egunerokoan jarotasunez eta zuzentasunez aritzea.
IRAKURKETA	• Irakurritako testu mota ezberdinetan eskatutako informazioa identifikatzea, ulertzea eta aztertzea.
IDAZKETA	• Idatzizko testu mota ezberdinen ezaugarriak (biografiak) errespetatuz testu koherenteak sortzea. • Sortutako testuak zuzentasun gramatikal eta ortografikoz idaztea.

GAZTELANIA ETA LITERATURA
1.hiruhilekoa
5.1 EL LIBRO DE MI VIDA - Landutako poema desberdinak intonazioa, bolumena eta doinua zaindus modu adierazkorrean errezitatzea. - Eskatutako informazioa bilatu eta hautatu ondoren, autobiografiaren egiturari antolatzea. - Poemen eraldaketan eta sorkuntzan landutako sormenezko teknika desberdinak zuzentasunez erabiltzea. - Landutako arau ortografikoak testuetan erabiltzea.
2.hiruhilekoa
5.2 GRANDES PERSONAS, PEQUEÑOS RELATOS - Narrazio testuetan informazioa identifikatzea, ulertzea eta aztertzea. - Landutako errekurtso linguistikoak erabiliz deskribapenak egitea. - Tildearen erabilera arauak kontzienteki aplikatzea.
3.hiruhilekoa
5.3 TU OPINION Y TU - Egoera desberdinen aurrean bere iritzia azaltzea eta hau justifikatzeko errekurtso linguistiko egokiak erabiltzea. - Irakurritako testuetan (azalpen eta iritzi testuetan) eskatutako informazioa identifikatzea, ulertzea eta aztertzea. - Landutako arau ortografikoak eta gramatikalak testuetan erabiltzea.

INGELESA
1.hiruhilekoa
5.1 ALEX AND THE MAGIC STAFF - Landutako komikia, testuak eta abestiak irakurtzea eta ulertzea. - Biografia bat egiteko informazio egokia bilatzea, antolatzea eta zuzentasunez idaztea. - Ahozko aurkezpena egitea ahozkerari zaindus eta esaldi egitura egokiak erabiliz. - Hiruhilekoan zehar landutako hiztegia (to be aditza, 1-100 bitarteko zenbakiak...) ahoz eta idatziz barneratzea.
2.hiruhilekoa
5.2 ANIMALS AROUND US - Landutako testuak, olerkiak eta abestiak irakurtzea eta ulertzea. - Animalia baten inguruko informazioa bilatzea, antolatzea eta zuzentasunez idaztea. - Animalia bati buruzko ahozko aurkezpena egitea, ahozkerari zaindus eta esaldien egitura egokiak erabiliz.

Hiruhilekoan zehar landutako gramatika eta hiztegia (animalien izenak, to have aditza, sing/plu...) ahoz eta idatziz barneratzea.
3.hiruhilekoa
5.3 CHOCOLATE FEST - Landutako testuak, errezetak, jolasak eta abestiak irakurtzea eta ulertzea. - Txokolateari buruzko lana prestatzea eta aurkeztea ahoskera zainduz. - Hiruhilekoan zehar landutako gramatika eta hiztegia (txokolatearekin lotutakoa, denbora antolatzaileak...) ahoz eta idatziz barneratzea.

MATEMATIKA
1.hiruhilekoa
5.1 DATUEN UNIBERTSOAN BUELTA - Batezbestekoa kalkulatzeko eta modu egokian aplikatzea. - Oinarrizko magnitudeen (luzera, pisua, edukiera eta denbora) unitateen baliokidetasunak erabiltzea eta denbora unitateen arteko eragiketak egitea. - Kopuru baten zatikiak adierazten duen balioa kalkulatzeko eta zatiki baliokideak identifikatzeko. - Datuak emateko erabiltzen diren adiera ezberdinak (taulak, infografiak...) interpretatzeko eta batetik bestera pasatzeko. - Mota ezberdinetako problemak ulertzea (batezbestekoekin, zatikiekin...) eta ezagutza matematikoa aplikatuz ebaztea.
2.hiruhilekoa
5.2 BIDEAN GALDU GABE - Oinarrizko irudi eta gorputz geometrikoak eta hauen elementuak identifikatzeko. - Mapa edo krokis batean puntu edo ibilbide bat identifikatzeko, deskribatzeko eta marrazteko. - Zatikiak eta zenbaki dezimaldunak erlazionatzeko, eta zenbaki dezimaldunen arteko eragiketak burutzeko. - Mota ezberdinetako problemak ulertzea eta ezagutza matematikoa aplikatuz ebaztea.
3.hiruhilekoa
5.3 ATERA KONTUAK - Kopuru baten zatia adierazteko, zatiki eta zenbaki dezimaldunen arteko baliokidetzak erabiltzea. - Oinarrizko eragiketa konposatuaren hierarkia ulertzea eta lehentasunak errespetatuz ebaztea. - Oinarrizko ekonomiaren inguruko kontzeptuak ezagutzea eta zuzen erabiltzea. - Mota ezberdinetako problemak ulertzea eta ezagutza matematikoa aplikatuz ebaztea.

INGURUNEAREN EZAGUTZA
1.hiruhilekoa
5.1 LANDAREAK LURRAREN OPARI • Unibertsoaren eta Eguzki-Sistemaren inguruko informazioa aukeratzea, antolatzea eta adieraztea. • Lurraren eta Ilargiaren mugimenduek eragiten dituzten fenomenoak barneratzea. • Landareen fotosintesi prozesua barneratzea eta honek gainontzeko bizidunengan duen garrantziaz ohartzea. • Gure ingurune hurbilean ohikoak diren zuhaitzen hostoak jasotzea eta herbarioa sortzea.
2.hiruhilekoa
5.2 LANDAREAK LURRAREN OPARIA • Mapetatik informazioa eskuratzea eta interpretatzea. • Euskal Herriko erliebe elementuak eta klima moten ezaugarriak ezagutzea. • Ingurune hurbileko ekosistemak eta bertako elementuen arteko harremanak ezagutzea. • Ekosistemaren desorekan eragina duten faktoreak identifikatzea eta hauek sor ditzaketen kalteak ondorioztatzea.
3.hiruhilekoa
5.3 MATERIA GARA • Materiaren egoerak eta haren propietateak ezagutzeko, informazioa eskuratzea, interpretatzea eta adieraztea terminologia zientifikoa erabiliz. • Lan sektoreak ezagutzea, definitzea eta langintza ezberdinekin erlazionatzea. • Produktu baten jatorria, eraldaketa prozesua eta honek sortzen dituen hondakinak ezagutzea.

HEZIKETA FISIKOA
• Landutako kirolean (atletismoa, euskal pilota, orientazioa, bizikleta, malabareak, acrosports...), eta burututako jardueretan oinarrizko trebetasunak jasotzea. • Jolasa oinarri hartuta, oinarrizko trebetasunak egoki lantzea. • Proposatutako ariketetan saiatzea. • Landutako baloreak (ikaskideekiko errespetua, joko arauen onarpena, emaitzaren onarpena...) zaintzea.

MUSIKA
1.hiruhilekoa
• Landutako teoria musikala (anakrusa, musika moldeak eta elementuak) ulertzea eta erabiltzea.

• Musikari klasiko ezagunen (Mozart, Schubert) bizitza eta obra ezagunenak lantzea eta aurkeztea. • DO-DO´ notak dituen eta gelan landutako edota berak asmatutako doinuak instrumentuz interpretatzea. • Genero musikal baten lanketa eta aurkezpena burutzea.
2.hiruhilekoa
• Landutako dantzak interpretatzea eta haietan gogoz parte hartzea. • DO-DO´ notak dituen eta gelan landutako edota berak asmatutako doinuak instrumentuz interpretatzea. • Landutako teoria musikala (bitarteak, luzapen ikurrak) ulertzea eta erabiltzea. • Ipuin musikal bat aurkeztea, soinu ezberdinak erabiliz eta ahotsaren entonazioa zainduz.
3.hiruhilekoa
• DO-DO´ notak dituen eta gelan landutako edota berak asmatutako doinuak instrumentuz interpretatzea. • Landutako teoria musikala (musikaren historia, instrumentu motak) ulertzea eta azaltzeko gai izatea. • Irudi eta pulsu desberdinetako eskema erritmiko-melodikoak irakurtzea eta interpretatzea, kontuan hartuta ñabardura agogikoak eta dinamikoak. • Antzerkia (gidoia), plastika (atrezzoa) eta musika (dantzak eta abestiak) uztartuz telebista saio bat sortzea.

PLASTIKA
1.hiruhilekoa
NATURAKO ELEMENTUEKIN ARTEA EGITEN • Natura elementuen ahalmen plastiko eta adierazpenezkoak arakatuz lan artistiko sortzea. • Egindako lanetan proportzionaltasuna eta esku-trebetasuna erakustea.
2.hiruhilekoa
JOSKETA • Ikasitako teknika erabiliz eta esku-trebetasuna erakutsiz josteta lana egitea. • Zailtasunei aurre egin, eta proposatutako josteta lanetan saiatzea.
3.hiruhilekoa
TELEBISTA • Antzerkia (gidoia), plastika (atrezzoa) eta musika (dantzak eta abestiak) uztartuz telebista saio bat sortzea.

7. OSASUN ARRETA

OSASUN OROKORRA

Aurretik osasun-fitxaren bitartez adierazi zenigutena aplikatuko dugu aurten ere ikasleei botika eman eta dagokien osasun arreta eskaintzeko garaian. Orduz geroztik **aldaketaren bat eman bada** (ikaslearen osasun egoera, har ditzakeen botikak...) lehenbailehen tutoreari adierazi, tutoreak emango dizuen informazio-orria bete eta, behar den kasuetan, medikuaren agiria ekarri beharko duzue. Tutoreak helaraziko dizuen fitxa horretan bi atal nagusi dituzue:

- Lehenengo atala krisi egoera bat sorraraz dezaketen gaixotasunen bat dutenek bete behar dute. Hala denean, ekar ezazue arren medikuaren txostena. Bertan, ikasleak krisiren bat izanez gero ikastolako kideok nola jokatu behar dugun adierazi behar da.
- Bigarrena orokorra da, denek betetzea eskatzen dizueguna. Bertan, gurasoek adierazi behar duzue ikastolari baimena ematen diozuen ala ez ikasleari botika emateko:
 - Analgesiko edota antiinflamatorio orokorrak seme-alabari emateko baimena ematen ote duzuen adierazi. **Bai** ala **ez** adieraz ezazue arren.
 - Gaixotasun kronikoa duelako beste sendagairik ematea eskatzen duzuenean (bronkodilatadoreak...) botikarekin batera medikuaren txostena ere ekar ezazue, arren, botika emateko jarraibideekin.

Haurren batek bestelako gaitz kutsakorren bat balu tutoreari berehala abisatzea eskatzen dizuegu (aftak, konjuntibitisak, zorriak, heste-zizareak, gastroenteritisa,...).

Ikasleak elikagaiekin loturiko arazorik duen kasuetan (alergia, intolerantziak...), eta arazo hau Ategorrietako jangelakoentzat berria bada (LH1ekoa delako, orain arte jangelakoa ez zelako edo arazoa berria delako), osasun fitxa betetzeaz gain, jangelako arduradunekin harremanetan jartzea eskatzen dizuegu.

ISTRIPUEN KUDEAKETA

Ikastolak ikasleentzat kontratatutako aseguruia Mapfreren bitartez bideratzen da. Aseguruetxe honek hitzarmena du Donostiako POLIKLINIKA eta QUIRON osasun-zentroekin. Istripu bat Ikastolako eremuan gertatzen denean, bai eskola-orduetan, baita eskolaz kanpoko jardueretan ere, ikasleak bi zentro hauetako batetara (larrialdietara) eramango dituzue. Bertan, Ikastolatik prestatu

zaien "istripu partea" erakutsi beharko dute. Istripu parterik ez balego (idazkaritza itxita dagoelako edo istripuaren ondorioak ikastola orduetatik kanpo sumatu direlako), Zurriola Ikastolako ikaslea dela adierazi eta partea hurrengo egunean jasoko dutela esanda, artatuak izango zarete. Hurrengo egunean abisua eman idazkaritzan gertatutakoarekin, parte bidali dezagun.

Norbaitek hitzartutako zentru hauen ordezkariak Osakidetzako zerbitzuak erabiltzea erabakiko balu, jakin, behin prozesua bertan abiatuz gero, ondorengo pausoak ere Osakidetzan eman beharko direla, beraien prozedurak eta tempusak jarraituz. Kasu honetan, Ikastolako asistentzia-partearekin prozedura berdina jarraitu beharko da, hau da, aldez aurretik prestatutakoa eraman edo hurrengo egunean ikastolan abisua eman, parte bidali dezagun.

8. IRTEERAK, JARDUERA OSAGARRIAK ETA OSPAKIZUNAK

IRTEERAK

Ikasturtean zehar hainbat irteera egin ohi dira urtero, goiz-pasa, egun-pasa edo egun batzuetakoak. Horietako batzuk helburu akademikoekin lotura zuzena dute, beste batzuek, ordea, elkarbizitzarekin edo bestelako zehar konpetentziekin. Aurtengo plangintzaren barruan, besteak beste, Uliara, Eureka Zientzia Museora, Plaiaundira, Arrobitxulora bizikletarekin... joango gara.

Aurreko ikasturtean martxan jarri genuen moduan, hemedik aurrera zenbait ekintza eta irteeratan Ikastolan Mugi txartelekin ibiliko gara. Ondorioz, irakasleak eskatutako irteera edo ekintza jakin batzuetarako ikasleei Mugi txartela pertsonala ekartzeko eskatuko zaie. Txartela ekartzen ez dutenek, Ikastolako txartel anonimoak erabiltzeko aukera izango dute, eta ondoren egindako bidaiaren kostua errezibo bitartez kobratuko zaizue gurasoei.

Ikasturte bukaerako 3 egunetako irteerak ere egingo ditugu (maiatzaren 27, 28 eta 29). LH5ekoak Allo-ra joango gara.

JARDUERA OSAGARRIAK:

Urtero, hainbat ekintza gauzatu ohi ditugu ikasgai jakin batzuetako eduki eta konpetentziak lantzeko, bai eta zeharkako konpetentziak lantzeko ere. Ekintza horietako batzuk ikastolan bertan egiten dira, eta beste batzuk, aldiz, ikastolatik kanpo.

Maila honetan ohiko jarduerak osagarriak hauek dira:

- Hatz-10 (mekanografia programa)

- Donostiako Zinemaldia
- Koldo Mitxelena literatur lehiaketa
- Zientzia museoa
- TINKO euskarazko zinema
- Giza eskubideen aldeko margolan lehiaketa
- Heziketa afektibo sexuala
- DYA-rekin lehen sorospen ikastaroa
- Teknologia berriek dituzten arriskuen inguruko formakuntza

Zurriolako Atariaren bidez emango dizuegu irteera horien berri, eta kosturik balute, errezibo bidez kobratuko zaizkizue.

OSPAKIZUNAK:

Ikasturtean zehar, Euskal Herriko eta Donostiako kultura ondarearen ezaugarri diren hainbat ospakizun burutzen ditugu. Gure gizartearen kultur-adierazpen hauek ikasleak ezagutzea eta horiekiko jakin-min eta begirunea izatea ikastolaren xedeetako bat da. Hortaz gain, momentu aproposak izaten dira Ikastolako ikasle, irakasle eta familiak elkartzeko eta gure kultura eta izaera auzora zabaltzeko. Horien berri data gerturatu ahala emango dizuegu.

Ospakizun hauek hurrengo datetan egitea aurreikusten dugu:

- Euskararen eguna: abenduaren 3an
- San Tomas: abenduaren 19an
- Olentzerorekin kantujiran: abenduren 24an
- Danborrada: urtarrilaren 19an
- Kaldereroak: otsailaren 6an
- Korrika txikia: martxoaren 27an
- Ikastolaren Eguna: maiatzaren 16an

Guraso bileren txosten orokorrean adierazten den bezala, Ikastolako kooperatibista moduan, gurasoek parte hartzeko konpromezua hartu duzue. Urte osoan zehar ekimen asko direnez, maila honi dagokiona Haur danborrada da. Honen inguruko informazio gehiago guraso bileran emango zaizue.

9. ZENBAIT OHAR

Ondoren aipatuko ditugun arauak ikastolaren eguneroko funtzionamendurako ipinitakoak dira. Arau horiek elkarbizitza eta ikastolako helburuen lorpenera bideratuta daude. Ondorioz, guztiok errespetatu eta errespetarazi behar ditugu.

EUSKARA

Ikastolan eta ikastolako jarduera guztietan euskaraz hitz egingo dugu, eta gure ingurukoek ere euskaraz hitz egin dezaten eskatuko dugu.

PUNTUALITASUNA ETA ASISTENTZIA

Errespetuzko jarrera bat denez, zaindu beharrekoa da. Ondorioz, gelara garaiz iritsi behar da saioa bere orduan hasteko.

Ikasleak, ikastolako saio edo edozein irteeretara etorri ezin badu edo lehenago atera behar duenean, gurasoen oharra edota justifikazioa aldezturik ekarriko dio tutoreari.

Oharrak beti idatziz egingo dira, ikaslearen aste-egitaraua edo tutorearen e-posta erabiliz.

HAMAIKETAKOA

Gomendagarria da hamaiketako osasuntsua ekar dezaten: fruta, frutu lehorrak, otartekoa...

URTEBETETZEAK

Ikasle guztien urtebetetzeak gelan ospatzen ditugu. Urteak betetzen dituen ikasleak bizkotxoak eta kandelak ekarri behar ditu. Mesedez eskatzen dizuegu etxeko ospakizunak ikastolatik kanpo antolatzea.

ATARIRAKO MATERIALA

Arrazoi pedagogikoei so eginez, atarian (goizeko zaintzan, hamaiketako garaian eta eguerdian) ikasleak jolasean aritzeko materiala ikastolak eskainiko du. Beraz, eskatzen dizuegu, zuen seme-alabek ikastolara jostailurik ez ekartzea (kromoak, zibak, rubik kuboak, panpintxoak...). Jostailuren bat ekarri beharko balute arratsaldeko 16:30etatik aurrera jolasean aritzeko, beraien motxiletan gordeta izan beharko dute ikastola-eguna amaitu arte. Hala ere, 16:30etatik aurrera, atarian ezingo dute baloiarekin jolatu.

SMARTWATCH-AK, SAKELEKOA ETA BESTELAKO GAILU ELEKTRONIKOAK

Ikasleek ezingo dituzte mugikorrak, smartwatch-ak eta baimendu gabeko bestelako gailu elektronikoak ikastola eremuan gainean eraman. Ikastolara ekartzekotan, motxilan gordeta izan beharko dituzte Ikastola eremutik atera arte.

PATINETEAK, BIZIKLETAK ETA BESTELAKOAK

Ikastola barnean hauen erabilera debekatua dagoenez, behin atea zeharkatuta ikasleak oinez joan beharko dira. Bizikletak eta patineteak sarreraren eskuinaldeko aparkalekuetan utziko dira lotuta.

ATEAREN IREKIERA ETA ITXIERA

LH 4., 5. eta 6. mailetakoko ikasleak bakarrik (heldurik gabe) irten daitezke Ikastolatik eguerditan jangela zerbitzua erabiltzen ez badute, eta egunero eskola ordutegia amaitutakoan. Helduren baten ardurapean ez badaude, ezingo dira Ikastolako atarian gelditu eskola-jarduna amaitu ondoren.

- Irekierak: 8:50 (ate nagusia), 12:30 eta 14:25 (ate txikia) eta 16:30 (ate nagusia)
- Itxierak: 9:05 (ate nagusia), 12:40 eta 14:35 (ate txikia) eta 17:15 (ate nagusia)

10. ERANSKINAK

A) ORDUTEGIAK

LH 5A- ANDREA BARRA

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
EUSKARA	MATE TXOKO	TAILERRAK	INGELESA	HEZ. FISIKOA
MUSIKA			EUSKARA	INGURUNEA
BALOREAK	EUSKARA	INGELESA	MATEMATIKA	INGELESA
INGURUNEA	GAZTELANIA	MATE. ERREF.	HEZ. FISIKOA	LIBURUTEGIA
MATEMATIKA	INGURUNEA	EUSKARA	GAZTELANIA	TUTORETZA

LH5B- MAITE CRAMOIX / AMAIA JAKA

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
EUSKARA	MATE TXOKO	TAILERRAK	HEZ. FISIKOA	EUSKARA
GAZTELANIA			LIBURUTEGIA	INGURUNEA
INGELESA	INGURUNEA	MATEMATIKA	EUSKARA	HEZ. FISIKOA
INGURUNEA	EUSKARA	GAZTELERA	INGELESA	INGELESA
MATEMATIKA	MUSIKA	BALOREAK	MATE. ERREF.	TUTORETZA

LH5C- MIKEL SOROA

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
EUSKARA	MATE-TXOKO	TAILERRAK	INGELES	MUSIKA
GAZTELANIA			EUSKARA	INGURUNEA
HEZ. FISIKOA	INGURUNEA	MATEMATIKA	MATE. ERREF.	INGELES
INGURUNEA	INGELES	EUSKARA	LIBURUTEGIA	GAZTELANIA
MATEMATIKA	EUSKARA	BALOREAK	HEZ. FISIKOA	TUTORETZA

B) JANGELAKO DEKALOGOA

GURE JANGELAKO DEKALOGOA

1. Jangela ez da jatetxe bat. Denon ardura izango da jantokiko zerbitzua eta garbitasuna. Bertako hezitzaileek lan horretan lagunduko gaituzte.
2. Jangelan errespetuzko jarrerak izan beharko ditugu:
 - Zerbitzatzen gaituenari eskerrak eman.
 - Gauzak "mesedez" eskatu.
3. Janaria eta esku zikinak ez datoz bat, ezta? Jantokira sartu aurretik eskuak ongi garbitu.
4. Bazkaldu aurretik denon artean mahaia jarriko dugu.
5. Janaria ez dugu jolasteko erabiliko. Beraz, ez bota ogi zatirik.
6. Matematikak bezala, jaten ere ikasten da! Horretarako elikagai guztiak probatu behar ditugu.
7. Sssssss... Denok gustukoa dugu giro lasaiean bazkaltzea. Tonu baxuan hitz egin eta oihurik ez, mesedez.
8. Jangelan presa ez da lagun ona. Beraz, mahaikideek amaitu arte ez gara mahaitik altxako.
9. Bazkaltzen bukatzean hezitzaileen laguntzarekin mahaia jasoko dugu eta mahai ingurua txukun utziko dugu.
10. Gure burua zaintzeaz gain natura ere zaindu beharko dugu ba! Plastikozko ontziak birziklatzera botako ditugu.

Aurretik ipinitakoak betetzeko gai al zara? Hala bada, ongi etorri ikasle!! Prest zaude Ategorrietako jangela erabiltzeko.

Ohar honen gaztelaniazko bertsioa [bertan](#) duzue irakurgai.

La versión en castellano de este documento está disponible [aquí](#).